

ta mamitsua dalako liburu berezi batean guzia, sail batez, argitaratzea erabaki da.

4. Bahr jaunaz itz egin da, Schuchardt-lan guzien itzulpena berangandik nai litzake. Asi diteke: *Sara'ko euskera* ta gero *Baskischen* deitzen diran lanetatik.

Ta besterik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

---

### Donosti'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, 1923' ko Otsailaren 27'an.

Batzaraldira euskaltzain abek datoz: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Lakonbe, Landeñetxe, Intza, Altube, Olabide, Intzagarai ta urgazleri batez.

Oiturazko otoitzez asi da batzaraldia.

1. Azkue jaunak irakuñi du. Euskaltzaindiaren izenean, Kardenal Vico'ri zuzendu zitzaion idazkia. Idazki onen erantzupena badu, ta auxe ere irakuñi da. Tedeschini Nuntzio jauna arazo ontan bitarteko dabil, ta Azkue jaunak dasa, onen idazkirik ez dala oraindik artu. Erabaki da: Arazo ontan Euskaltzaindiak eta Eusko-lkaskuntzak batera jo bear dute ta oñetarako Eusko-lkaskuntzarekin izketa bat izatea on litzake.

2. Kristau-ikasbidez edo dotriñaz euskaltzañak luzaro itz egin dute. Urkijo jaunak adierazi digu XVI-garñen mendean ze gai ta zer añeta artzen zuten Euskaleriako Gotzaiak *Kristau-ikasbideak* argitaratzen ta eren eliztarñen artean zabaltzen. Urkijo jaunak antziñako idazkietan ikusi duenaz, urtero argitaratzen ziran dotriñak ta bere aburuz, euskalki nagusietan

beñepeñ. Urkijo jaunak berak dasa: Euskaleriko apaiz eta eliztarai dei bat egin bear zaiela, adierazorik, baldin dotrin abetako batzuek balituzte, Euskaltzaindiari igortzeko, saritxo baten bitartez ala bear ezkerro. Jabeak eren dotriñak autzi nai ez balituzte, Euskaltzaindiari adierazo bezazkiote, antziñako dotriña oren zerzeladak bederik ta jabearen izena.

Urkijo jaunaren iritxia Euskaltzaindiak onetsi du. Gai ontan bertan zer ikusia baduelako, Pau'ko Udal-liburuzañari galdetu bear zaio, *Leclussen* iztegi argitaratu gabea non ote dan.

3. Altube jaunak txosten bat dakar: *j* ala *i* itzauré idatzi bear ote danez. Azkue jaunak gai ontako lan bat gure EUSKERA'n argitaratu zuen, ta bere aburua da: *i* grekara idatzi bear litzakela beti. Altube'ren eritxiz, beti *j*; orela oituratu diralako idazle geyenak eta bere txostenean agertzen dituen irizpidegatik.

Auxe erabaki da: Altube jaunaren lana *Euskera*'n argitaratzea ta idazkera erabakiak piloan batutzen diranez agertuko dira.

4. Etxafi-Aranaz'en egin bear diran Euskal-jaien beña, A. Intza'k Euskaltzaindiari dakarkio.

Oñilean izango dira. Abetzaz gañera, Euskaltzaindiak bere Euskalegunak Napañoa'ko Donestebe'n egingo ditu, datoñen Agoña'ren 7-8 ta 9'an. Egun oietako egitamua aitatu bear da, aldan lasterén, ta gai berezi batzuek aukeratzeko Azkue ta Eleizalde jaunen batzorde bat iratsi da.

5. Euskaltzainak ekañi dituzte antziñako liburuetan idoro dituzten *aditz-jokeraen* adibideak ta baita ere *esku-iztegiakoak*.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta otoitzez amaitu da batzaraldi au.

---

## **Donosti'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, 1923'ko Otsailaren 28'an.**

Len aipatu dira euskaltzain berak batzaraldira datoz. Ugazletatik Gabriel Manterola jauna.

Azkue da Maipuru ta otoitza egin-da batzaraldiari asipena eman dio.

1. Amado Alonso jaunaren bitartez Euskaltzaindiak daki H. Urtel jaunak euskal-ikastaroa sortu duela Hamburgo'ko Ikastetxe-Nagusian. Euskaltzaindiak pozik entzun du. Ango ikasleentzat euskal-liburu abek igortzea erabaki da: Arigarai'en gramatika-2; Ituri-rena-1; ta Azkue'ren Prontuario de la Lengua Vasca-10.

2. Eusko-Ikaskuntza ta Euskaltzaindia batera ibiliko dira *Kristau-ikasbidea* ta euskal-ipuin batzuek bederik, Euskalefiko ikasguetan sararazteko ekiñaldian.

3. Iruña'ko apaiz-ikastetxeko irakasleari 1.000 pezeta ematea erabaki da.

4. Azkue jauna batzaretik atera dan txolarte batean, Kanpion jaunak beste euskaltzainai gogorazo dizkie Euskaltzainburuak egiten dituen lanak. Euskaltzaindiaren bein-beineko etxeak zerbait esango luke, izketan baleki. Goiz ta aratsalde lanean ari da Euskaltzaindiarentzat ta lan asko ta sari gutxi. Euskaltza-